

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

357/2022 Foru Agindua, uztailaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 244/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria eskatzeko prozedura arautzen duena.

Maiatzaren 3ko 244/2022 Foru Aginduak araututa utzi zuen zer prozedurari jarraitu behar zaion produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria eskatzeko (2022/05/05eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN). Eta apirilaren 1eko 216/2022 Foru Aginduak, bere aldetik, hobari horren aurrerakina eskatzeko prozedura arautu zuen.

Foru agindu horiek martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan jasotako erregulazioa garatzeko eman ziren (6/2022 Errege Lege Dekretua, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituena). Artikulu horretan esaten da foru administrazioak eskudun direla Euskal Autonomia Erkidegoan hobaritutako produktuen hornidurei dagozkien hobarien eta konturako aurrerakinaren itzulketak izapidetzeko. Orobat, xedapen horren 20. artikuluan araberako, foru lurraldeen esparruan hobariak kudeatzea eta itzultzea, kolaboratzaileei konturako aurrerakinak ematea eta beharrezko funtsak hornitzea EAEko erakundeei dagokie.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez neurriak hartzen eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egin, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzun eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomiko eta soziala ahalbidetzeko, aldaketak sartu ditu martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretu horretan, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzeko, besteak beste.

Horrek beharrezko egiten du maiatzaren 3ko 244/2022 Foru Aginduaren zenbait alderdi aldatzea hobariaren kudeaketan kolaboratzen dutenen aldeko itzulketara prozedura luzapen horretara egokitzeko.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea 244/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria eskatzeko prozedura arautzen duena.

Aldaketa hauek sartzen dira maiatzaren 3ko 244/2022 Foru Aginduan, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria eskatzeko prozedura arautzekoan:

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 357/2022, de 6 de julio, por la que se modifica la Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, por la que se regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos.

La Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 05/05/2022). Y la Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, por su parte, regula el procedimiento para solicitar el anticipo de dicha bonificación.

Las referidas órdenes forales se dictaron en desarrollo de la regulación contenida en el artículo 17 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, donde se determina que las Administraciones forales son competentes para la tramitación de las devoluciones de las bonificaciones y anticipos a cuenta correspondientes a suministros de productos objeto de bonificación que hayan tenido lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y donde en su artículo 20 se señala que en el ámbito de los territorios forales, la gestión y devolución de las bonificaciones, así como la concesión de anticipos a cuenta a los colaboradores, y su correspondiente provisión de fondos, corresponde a las Instituciones Vascas.

El Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma, modifica el citado Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, para, entre otras cuestiones, prorrogar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos hasta el 31 de diciembre de 2022.

Ello exige modificar diversos aspectos de la Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, para ajustar a la prórroga establecida, el procedimiento de devolución a los colaboradores en la gestión de la bonificación.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, por la que se regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos.

Se modifica la Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, por la que se regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos, en los siguientes términos:

Bat. 3. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. 2022ko maiatzetik abendura bitarteko eta 2023ko urtarileko lehen 15 egun naturalen barruan, kolaboratzaileak aurreko hilean egin diren hobariaren itzulketa eskatu behar du, erreferentziatzko aldian azken kontsumitzaileei hornitutako litro edo kilogramo bolumenari deskontua aplikatuta ateratzen den zenbatekoagatik.»

Bi. 5. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«5. Kolaboratzaileak konturako aurrerakina eskatu badu apirilaren 1eko 216/2022 Foru Aginduak, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duenak, jasotakoaren arabera, hobari horrek estalitako azken hilabeteari dagokion eskaera aurkezten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuak aurrerakinaren zenbatekoa gutxituko du dagokion hileko itzulketatik.»

Itzulketaren zenbatekoa aurrerakinaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, kolaboratzaileak diferentzia ordaindu beharko du martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 61.2 artikuluan jarritako epean, zirkunstantzia hori jakinarazten zaionetik aurrera.

Kolaboratzaileak ez badu hobariaren itzulketa eskatu neurria indarrean dagoen lehen hiru hilabeteetako batean, eta, hala ere, apirilaren 1eko 216/2022 Foru Aginduan aipatzen den konturako aurrerakina jaso badu, Zerga Administrazioak bidegabeko aurrerakinaren itzulketari dagokion zorra likidatu eta jakinaraziko du, eta kolaboratzailea behartuta egongo da haren zenbatekoa ordaintzera martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 61.2 artikuluan aurreikusitako epean, zirkunstantzia hori jakinarazten zaionetik aurrera.»

Hiru. 6. apartatua honela geratzen da idatzita:

«6. Kolaboratzaileak hobaria aplikatu badu neurria indarrean dagoen lehen hiru hilabeteetan, eta itzulitako hobariaren zenbatekoa (apirilean hobaritutako produktuen salmenta bolumenaren % 90ari dagokiona) handiagoa bada aipatutako apirilaren 1eko 216/2022 Foru Aginduarekin bat hitzartutako konturako aurrerakinaren zenbatekoa baino, zenbateko horren osagarri bat eskuratuko du: bi zenbatekoen arteko diferentzia positiboa.»

Osagarri hori jasotzeko eskubidea izango dute, baita ere, AdBlue ez diren produktu hobarituen salmentengatik neurriaren lehen hiru hilabeteetan hobaria aplikatu duten kolaboratzaileek, baldin eta, 2021ean produktu hobarituen salmentarik ez egiteagatik, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den eroldan ageri ez badira (6/2021 Errege Lege Dekretua, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzutako Plan Nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen). Kasu horretan, osagarriaren zenbatekoa itzuli den hobariarena izango da, hau da, apirilean hobaritutako produktuen salmenta bolumenaren % 90.

Kolaboratzaile bakoitzak konturako aurrerakinagatik eta haren osagarriagatik jaso dezakeen zenbatekoa ez da 5.000.000 eurotik gorakoa izango. Aurrerakinaren osagarri hori, 3. apartatuan aurreikusitako ondorioetarako haren parte izango dena, ofizioz izapidetuko du Zerga Administrazioak, 2022ko ekainari dagokion hobariak itzultzeko aurkezten den eskaera izapidetzen den modu berean.»

Uno. El apartado 2 del artículo 3 queda redactado en los siguientes términos:

«2. El colaborador presentará mensualmente, en los primeros 15 días naturales de los meses de mayo a diciembre de 2022 y enero de 2023, una solicitud de devolución de las bonificaciones efectuadas en el mes anterior, por el importe que resulte de aplicar el descuento al volumen de litros o kilogramos, según corresponda, que haya suministrado a los consumidores y a las consumidoras finales en el periodo de referencia.»

Dos. El apartado 5 del artículo 3 queda redactado en los siguientes términos:

«5. En caso de que el colaborador hubiera solicitado el anticipo a cuenta de acuerdo con lo dispuesto en la Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, por la que se regula el procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos, cuando se presente la solicitud correspondiente al último mes cubierto por esta bonificación, el departamento de Hacienda y Finanzas procederá a minorar, de la devolución mensual correspondiente, el importe del anticipo.»

Si el importe de la devolución fuera inferior al importe del anticipo, el colaborador deberá ingresar, la diferencia en el plazo previsto en el artículo 61.2 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, computado desde que se le notifique esta circunstancia.

En el caso de que el colaborador no haya solicitado la devolución de la bonificación durante alguno de los tres primeros meses de duración de la medida, habiendo percibido el anticipo a cuenta al que hace referencia la citada Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, la Administración tributaria procederá a liquidar y notificar la deuda correspondiente al reembolso del anticipo indebido, cuyo importe deberá ser ingresado por el mismo en el plazo previsto en el artículo 61.2 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, computado desde que se le notifique esta circunstancia.»

Tres. El apartado 6 queda redactado en los siguientes términos:

«6. En el caso de que el colaborador haya practicado la bonificación durante los tres primeros meses de duración de la medida, y el importe de la bonificación que haya sido objeto de devolución, correspondiente al 90 % del volumen de ventas de productos bonificados del mes de abril, haya resultado superior al importe del anticipo a cuenta acordado en virtud de lo previsto en la Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, mencionada anteriormente, obtendrá un complemento a este último, cuantificado en la diferencia positiva entre ambos importes.»

El complemento también lo obtendrán los colaboradores que hayan practicado la bonificación durante los tres primeros meses de duración de la medida por ventas de productos bonificados distintos del AdBlue, y que no figuren en el censo al que se refiere el apartado 3 del artículo 17 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, por no haber realizado ventas de productos bonificados en 2021. En este caso, el importe del complemento será el de la bonificación que haya sido objeto de devolución, correspondiente al 90 % del volumen de ventas de productos bonificados del mes de abril.

El importe total a obtener por cada colaborador en concepto de anticipo a cuenta y complemento del mismo no podrá ser superior a 5.000.000 de euros. Este complemento al anticipo, que a los efectos previstos en el mencionado apartado 3 formará parte del mismo, se tramitará de oficio por la Administración tributaria, en los mismos términos en que se tramite la solicitud de devolución de las bonificaciones correspondientes al mes de junio de 2022, que se presente en el procedimiento establecido al efecto.»

Lau. Beste apartatu bat gehitzen da, 7.a, honela dioena:

«7. Handizkako operadoreek zein hobariaren kudeaketarako kolaboratzaileek Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren informazio eskakizunei erantzun beharko diete, betiere martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituenak, 17. artikulua 6. apartatuaren lehendabiziko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Informazio hori oinarri hartuta, Ogasun eta Finantza Departamentuak egindako itzulketak doituko ditu, hala badagokio. Azken doikuntza horretatik ateratzen bada kolaboratzaileak zenbateko bat ordaindu behar duela, hark martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.2 b) artikuluan jasotako epean egin beharko du ordainketa, egoera horren berri ematen zaionetik aurrera.»

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko ekainaren 27tik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko uztailaren 6a.—Ogasuna eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (4608)

Cuatro. Se adiciona un apartado 7 con el siguiente contenido:

«7. A efectos de lo dispuesto en el primer párrafo del apartado 6 del artículo 17 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, tanto los operadores al por mayor como los colaboradores en la gestión de la bonificación deberán atender los requerimientos de información de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia.

Sobre la base de esta información, el Departamento de Hacienda y procederá a realizar un ajuste, en su caso, de las devoluciones efectuadas. Si de este último ajuste resultase una cantidad a ingresar por parte del colaborador, deberá efectuar su ingreso en el plazo previsto en el artículo 61.2 b) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, computado desde que se le notifique esta circunstancia.»

Disposición final. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos desde el 27 de junio de 2022.

San Sebastián, a 6 de julio de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (4608)